



NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA
UNIBERTSITATEAN SARTZEKO GAITASUN PROBAK
2005-06 ikasturtea
IRAKASGAIA: EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

ARGIBIDE OROKORRAK ETA BALIOESPENA

1. Proban bi aukera (A eta B) emango dira eta horietatik bat hautatu beharko duzu.
2. Soilik hautatu duzun (A ala B) aukerako galderei erantzun. Behin aukera bat hautaturik, soilik balioetsiko dira aukera horretatik erantzundako galderak.
3. Atal bakoitzean adierazten da gehienez lor daitekeen puntuazioa.

A AUKERA

A) PROBA TEORIKOA

Erantzunetatik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0,30. Erantzun okerra: -0,10. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.

1. Enpresa batean, makineria honelako baliabide bat da:
 - a) Ukigarri finantzarioa.
 - b) Ukigarri fisikoa.
 - c) Ukiezina.
2. Ondoko taldeetako zeinetan sartuko zenituzke Erantzukizun Mugatuko Sozietateak?
 - a) Sozietate pertsonalistak.
 - b) Sozietate kapitalistak.
 - c) Gizarte-ekonomiako enpresak.
3. Enpresa bat bere buruaren bezero izatera pasatzen denean, honetaz hitz egiten da:
 - a) Atzeranzko integrazioa.
 - b) Aurreranzko integrazioa.
 - c) Azpikontratazioa.
4. Iraupen mugatuko proiektu zehatz bati ekiteko xedez, zein izango da bi enpresa edo gehiago elkartzeko modu legal egokiena?
 - a) Ustiapen partzuergoa.
 - b) ABEE (aldi baterako enpresa-elkartea) (UTE).
 - c) Frankizia.
5. Ondarearen oinarritzko ekuazioaren arabera:
 - a) Ondarea = eskubideak – obligazioak
 - b) Ondarea = ondasunak + eskubideak
 - c) Ondarea = ondasunak + eskubideak - obligazioak
6. *Kutxa* kontuak honakoa adierazten du:
 - a) Ondasunak
 - b) Eskubideak
 - c) Obligazioak





7. Epe luzerako pasibo (galdagarria) honakoez osaturik dago:
- Jabeek edo bazkideek enpresari emandako kapitala eta enpresak irabazitako eta banatu gabeko mozkinak sorturiko erreserbak.
 - Enpresak aurre egin behar dien urtebete baino epemuga luzeagoa duten ordainketa-obligazioak.
 - Enpresak aurre egin behar dien urtebeteko edo epemuga laburragoa duten ordainketa-obligazioak.
8. Zein ratio kalkulatu da zatiketaren bidez alderatuz aktibo zirkulatuaren eta pasibo zirkulatuaren arteko erlazioa?
- Kaudimen-ratioa
 - Berehalako erabilgarritasunaren ratioa
 - Berme-ratioa
9. Finantza errentagarritasunak edo baliabide propioen errentagarritasunak, honakoa erlazionatzen du:
- Lortutako mozkinak enpresak egin duen inbertsio osoarekin, hau da, aktibo osoarekin.
 - Lortutako mozkinak enpresaren funts berekiekin.
 - Akziodunek lortutako mozkinak (dibidendoak) enpresari eman dizkioten kapitalekin.
10. Kopuru berdineko baina mugaegun ezberdineko kapitalen artean, mugaeguna lehenago dutenek:
- Mugaeguna geroago dutenen finantza-balio berdina dute.
 - Mugaeguna geroago dutenen finantza-balio handiagoa dute.
 - Mugaeguna geroago dutenen finantza-balio txikiagoa dute.
11. Inbertsioak balioesteko eta hautatzeko irizpiderik perfektuena, eta beraz, proiektuak hautatzeko erabakia hartzerakoan, gainerako irizpideen gainetik gelditzen dena, honela deitzen da:
- Berreskuratze epea edo PAY-BACK
 - Berreskuratze epe eguneratua edo "PAY-BACK GAURKOTUA"
 - Balio eguneratu garbia (BEG)
12. Ondokoen artean esan zein den barne baliabideen iturria:
- Autofinantzaketa
 - Obligazioen jaulkipena
 - Banku-maileguak
13. Produktu bukatutik abiatuz diseinua aurkitzeko saioa, honela deitzen da:
- Industria espioitza
 - Atzeranzko ingeniarietza
 - Benchmarking
14. Kostu aldakor osoa zati produkzio-unitate kopurua, honela deitzen da:
- Batez besteko kostu finkoa
 - Batez besteko kostu aldakorra
 - Batez besteko kostu osoa
15. Ondokoen artean esan zein aldagai kontrolatzen ahal den:
- Produktua
 - Merkatua
 - Lehia
16. Enpresaren produktu guztiei marka bera jartzeko estrategiari, honela deitzen zaio:
- Marka bakarrekia
 - Marka anitzekia
 - Bigarren marketakia



17. Enpresa baten plangintza funtzioaren barruan, hauexek dira helburuak:
- Jarduera zehatz bat egiterakoan bata bestearen atzetik jarraitu beharreko urrats multzoa; jarduerarako jarraibide zehatzak dira.
 - Zuzendaritzak hartzen dituen erabakiak bideratzen dituzten enuntziatu orokorrak dira, hau da, beren pentsamendua eta ekimenak bideratzen dituzten ildo orokorrak.
 - Planarekin lortu nahi diren azken emaitzak dira.
18. Nola deitzen da lan bat burutu aurretik azken emaitza zein izan behar den zehaztean datzan koordinazio mekanismoa?
- Urratsen normalizazioa
 - Emaitzen normalizazioa
 - Trebetasunen normalizazioa
19. Zer ordainketa sistema da langileei baimena ematen diena enpresaren akzioak merkatuko salneurrian baino merkeago erosteko?
- Salmentengatiko komisioa
 - Produktibitate hobaria
 - Stock options
20. Balio-katean, zein jardueraren barruan jarriko zenuke enpresak lortzen duen ekoizpenaren banaketa?
- Barne logistika
 - Kanpo logistika
 - Hornidura

B) PROBA PRAKTIKOA

LEHEN ARIKETA.

(PUNTUAZIOA GEHIENEZ: PUNTU 1)

Inbertitzaile batek 19.000 € ditu. Mahai gainean bost inbertsio proiektu ditu, eta bakoitzaren hasierako kostua eta kutxa emari garbiak honako hauek dira:

INBERTSIO PROIEKTUA	INBERTSIOAREN ZENBATEKOA	1.URTEA	2.URTEA	3.URTEA	4.URTEA
A	3.000	0	1.000	2.000	3.000
B	12.000	6.000	6.000	6.000	6.000
C	2.334	250	500	750	1.000
D	4.666	2.000	4.666	8.444	12.222
E	8.000	4.500	3.200	2.000	1.000

Kapitalaren kostua % 10ekoa bada, **antolatu** Inbertsio proiektuak berreskuratze-epa eguneratuaren arabera, eta **adierazi** zein proiektu burutuko diren. Demostratu.

Oharra: Biribildu zifrak bi hamarrenekin.





BIGARREN ARIKETA. (PUNTUAZIOA GEHIENEZ: 3 PUNTU)

“LAN-JANTZIAK, S.A.” enpresak langileendako jantziak egin eta saltzen ditu. Honako hau da 2005eko abenduaren 31n aurkezten duen ondareko elementuen zerrenda, eurotan:

• Bazkideen hasierako ekarpena.....	160.000
• Hainbat kontu korrontetan enpresaren aldeko saldoa	27.450
• Ibilgetu materialak jasan duen baliogalera metatuaren balioespena.....	47.950
• Enpresak aurtun (1), eta zergen ondoren, lorturiko irabazia.....	¿.....?
• Enpresaren hainbat lokal.....	115.000
• Kobratzeko eskubidea, beste enpresa bati 9 hilabetera eman dion mailegu batengatik.....	11.500
• Hainbat bezerori kobratu beharreko fakturak	12.000
• Etika Kutxatik jasotako mailegua, interes-tasa finkokoa, 5 urtera	38.000
• Enpresaren hainbat ibilgailu	77.500
• Enpresaren lokal bat alokatzeagatik kobratu beharreko fakturak	6.700
• Hainbat motatako sukaldari-jantziak saltzeko prest	16.100
• Kanbio-letra ordaindu gabeak, ehunak, hariak eta botoiak erosteagatik	53.750
• Lan-jantziak egiteko erabili diren makinak	89.750
• Beste enpresa batetik jasotako mailegua, 12 hilabete barru itzultzekoa	16.750
• Marka komertzial erregistratua	21.300
• Enpresak bere borondatez banatu ez dituen mozkinak	¿.....?
• Altzariak, mahaiak, aulkiak, apalategiak	34.380
• Ehunak, hariak, botoiak, eta abar.....	28.900
• Hainbat makina erosteagatik 30 hilabeterako zorra.....	52.000
• Hamar hilabeteko kreditua makina zahar bat saltzeagatik.....	7.200
• Gizarte Segurantzarekin duen zorra	19.500

Urte honen amaieran lortutako irabazia interes eta zergak kontuan hartu aurretik 64.600 eurora iritsi da.

Ekitaldi ekonomiko honetarako, finantza-gastuak kalkulatzeko dira jakinik zorraren batez besteko interes-tasa % 9 izan dela.

Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 35 da.

Ekitaldi honetako salmentak 1.200.000 € izan dira.

(1) Kopuru hau lortzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu.

HAU ESKATZEN DA:

A) Egoera balantzea idaztea, ondare masen arabera sailkatua: Aktiboa likidezia txikienetik handienera eta Pasiboa galdagarritasun txikienetik handienera. **(1,75 puntu)**

B) Kalkulatu errentagarritasun ekonomikoa, finantza errentagarritasuna, aktiboen errotazioa, salmenten gaineko marjina eta esan bi osagaietako zeinetan oinarritzen duen mozkinak. **(0,5 puntu)**

C) Hurrengo ekitaldi ekonomikoan, enpresak inbertsio bat egin du aktiboa 100.000 € gehituz eta interesen eta zergen aurreko mozkinak gutxitu egin da, 18.000 € izanik.
Aipatu inbertsioa finantzatzeko badu, soilik kapital-gehikuntza (funts berekiak) erabiliz, Mozkin Garbia 1.170 € da.
Aldiz, mailegu baten bidez osorik finantzatzeko badu, pasibo galdagarria gehituz, Mozkin Garbia -7.200 € da.
Azal ezazu bi egoeretako palanka-efektu finantzarioa, errentagarritasun ekonomikoaren beherakadaren aurrean.
(0,75 puntu) (2)

(2) Azalpena laguntzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu.

OHARRA: Biribildu zifrak bi hamarrenekin.





B AUKERA

A) PROBA TEORIKOA

Erantzunetik bat bakarrik da zuzena. Erantzun zuzena: 0,30. Erantzun okerra: -0,10. Erantzunik gabe: ez da kontuan hartzen. Puntuazioa gehienez: 6 puntu. Puntuazioa gutxienez: 0 puntu.

1. Enpresa batean, patente baten gaineko eskubidea, honelako baliabide bat da:
 - a) Ukigarri finantzarioa
 - b) Ukigarri fisikoa
 - c) Ukiezina
2. Ondoko taldeetako zeinetan sartuko zenituzke Sozietate Anonimoak?
 - a) Sozietate pertsonalistak
 - b) Sozietate kapitalistak
 - c) Gizarte-ekonomiako enpresak
3. *Hedadura ekonomiak* sortzen dira, hainbat ondasunen ekoizpen eta merkaturatze kostuak elkarturik, honakoak direnean:
 - a) Haietako bakoitzak banaka duen kostua baino handiagoak.
 - b) Haietako bakoitzak banaka duen kostuaren berdin-berdinak.
 - c) Haietako bakoitzak banaka duen kostua baino txikiagoak.
4. Enpresa batek (kontratista zein bezero) beste enpresa bati jarduera bat baldintza jakin batzuetan enkargatzen dionean, baldintza horiek betez gero ekoizpena erosiko diolako bermarekin, honetaz ari gara:
 - a) Atzeranzko integrazioa.
 - b) Aurreranzko integrazioa.
 - c) Azpikontratazioa.
5. Eman ezazu erantzun zuzena. Esportazioetan, banatzaileak:
 - a) Esportatzailearen produktua erosi eta berriz saltzen du.
 - b) Enpresaren izenean jarduten duen ordezkaria da.
 - c) Bere merkatuko bezeroen eskaerak besterenganatzen dizkio ordezkatzeko duen enpresa esportatzaileari.
6. Enpresa baten aktiboan honakoak biltzen dira:
 - a) Bere ondasunak, eskubideak eta obligazioak.
 - b) Bere eskubideak eta obligazioak.
 - c) Bere ondasunak eta eskubideak.
7. *Salgaiak* kontuak honakoa adierazten du:
 - a) Ondasunak
 - b) Eskubideak
 - c) Obligazioak
8. Pasibo ez galdagarria edo funts berekia honakoez osaturik dago:
 - a) Jabeek edo bazkideek enpresari emandako kapitala eta enpresak irabazitako eta banatu gabeko mozkinen sorturiko erreserbak.
 - b) Enpresak aurre egin behar dien urtebete baino epemuga luzeagoa duten ordainketa-obligazioak.
 - c) Enpresak aurre egin behar dien urtebeteko edo epemuga laburragoa duten ordainketa-obligazioak.
9. Zein ratio kalkulatu da zatiketaren bidez alderatuz aktibo osoaren eta enpresak epe laburrera zein luzera dituen zor guztien arteko erlazioa?
 - a) Kaudimen-ratioa
 - b) Berehalako erabilgarritasunaren ratioa
 - c) Berme-ratioa





10. Honako hauek lotzen ditu akziodunaren errentagarritasunak:
- Lortutako mozkinak enpresak egin duen inbertsio osoarekin, hau da, aktibo osoarekin.
 - Lortutako mozkinak enpresaren funts berekiekin.
 - Akziodunek lortutako mozkinak (dibidendoak) enpresari eman dizkioten kapitalekin.
11. Euskarriaren arabera, bi inbertsio mota bereizten dira:
- Epe laburrekoa eta epe luzekoa.
 - Finantzarioak eta produktiboak.
 - Ordezpenekoa kostuak murrizteko, eta dauden merkatuen hedapenekoa.
12. Interes-tasa bat ezagutuz, edozein kapitalen etorkizuneko balioa kalkulatzeari, honela deitzen zaio:
- Kapitalizazioa
 - Eguneratzea
 - Cash flow
13. Ondokoen artetik esan zein den pasibo finkoaren iturri:
- Obligazioen jaulkipena
 - Merkataritzako deskontua
 - Epe laburrera jasotako maileguak eta banku kredituak
14. Benchmarking estrategia, honakoa da:
- Produktu bat egiteko modurik hoberenak imitatzea.
 - Produktu bukatutik abiatuz diseinua aurkitzen saiatzea.
 - Legez kanpoko bidea erabiliz, prototipoen ikerketari, garapenari eta fabrikazioari buruzko informazioa lortzea.
15. Kostu finko osoa zati produkzio-unitate kopurua, honela deitzen da:
- Batez besteko kostu finkoa
 - Batez besteko kostu aldakorra
 - Batez besteko kostu osoa
16. Ondokoen artetik esan zein aldagai kontrolatzen ahal den:
- Banaketa
 - Merkatua
 - Lehia
17. Enpresaren produktu bakoitzari marka ezberdina jartzeko estrategiari, honela deitzen zaio:
- Marka bakarrekoa
 - Marka anitzekoa
 - Bigarren marketakoa
18. Enpresa baten plangintza funtzioaren barruan, hauexek dira politikak:
- Jarduera zehatz bat egiterakoan bata bestearen atzetik jarraitu beharreko urrats multzoa; jarduerarako jarraibide zehatzak dira.
 - Zuzendaritzak hartzen dituen erabakiak bideratzen dituzten enuntziatu orokorrak dira, hau da, beren pentsamendua eta ekimenak bideratzen dituzten ildo orokorrak.
 - Planarekin lortu nahi diren azken emaitzak dira.
19. Nola deitzen zaio lan bat burutzeko behar den prestakuntza mota zehaztean datzan koordinazio mekanismoari?
- Urratsen normalizazioa
 - Emaitzen normalizazioa
 - Trebetasunen normalizazioa





20. Zein teoriak ezartzen du, gizakiek beti jarduten dutela 5 mailatan sailka daitezkeen beharrak asetzeko?
- Maslow-ren teoria, beharren hierarkiari buruzkoa.
 - Hezberg-en teoria, bi faktoreei buruzkoa.
 - Vroom-en teoria, igurikimenei buruzkoa.

B) PROBA PRAKTIKOA

LEHEN ARIKETA.

(PUNTUAZIOA GEHIENEZ: PUNTU 1)

Fantasiako atorrak egiten dituen enpresa bat erabat espezializatua dago Iparramerikako Estatu Batuetarako esportazioetan. Makineriaren, eraikuntzaren eta esku-lanaren kostuak 90.000 € dira; horrez gain, uraren eta elektrizitatearen hornidurengatik eta aseguruagatik 15.000 € ordaindu behar ditu. Ator bakoitza 1'5 m² ohialekin egiten da eta ohialaren kostua 2'5 €/m² da; gainera, ator bakoitzaren botoiak, josteko haria, etiketatzea eta ontziratzea 0'8 € da. EEBBetara esportatzeko, herrialde horretako aduanak 25.000 € kobratzen du kuota, gehi 0'95 €-ko arantzela ator bakoitzeko. Ator bakoitza 12 eurotan saltzen da.

Zenbat ator saldu eta esportatu behar ditu dirua ez irabazteko eta ez galtzeko?

Zenbat ator saldu eta esportatu behar ditu 130.000 € irabazteko?

Irudikatu grafikoki errentagarritasun-atalasea, galeraren eremua eta irabazien eremua seinalatuz.

BIGARREN ARIKETA. (PUNTUAZIOA GEHIENEZ: 3 PUNTU)

“QUAD-QUAD S.L” enpresak quad ibilgailuak (4 gurpileko motorrak) salerosten ditu. Honako hau da 2005eko abenduaren 31n aurkezten duen ondareko elementuen zerrenda, eurotan:

- Quad ibilgailuak saltzeagatik kobratu beharreko fakturak..... 44.390
- Ekitaldi honetan enpresak lortutako mozkinak, zergak ordaindu eta gero (1).....¿.....?
- Beste enpresa bati emaniko mailegua, 12 hilabeteko epean 15.810
- Ordaindu gabeko fakturak, Kawasaki hainbat quad erosteagatik 64.600
- Bazkideen hasierako ekarpena 82.000
- Informatika programak 7.950
- Bere borondatez banatu ez dituen irabaziak..... 13.880
- 6 hilabetetako zorra, ordenagailuak erosteagatik 3.600
- Salgaiak etxez etxe banatzeko furgoneta 23.250
- Etika Kutxak emandako mailegua, 24 hilabetetan itzultzekoa 8.500
- Kontu korronteetan gordailututako dirua 16.650
- Hainbat urtetako Ibilgetu Materialaren Amortizazio Metatua 13.800
- Ordaindu beharreko fakturak, bertako komunikabideetan publizitate kanpaina bat egiteagatik 5.750
- Eskudirua 7.400
- Hainbat motatako quad, saltzeko 62.690
- Kanbio-letra ordaindu gabeak, Yamahari 5 quad erosteagatik 34.400
- Bere jabetzako lokal bat 52.500
- Lokala dagoen lursaila¿.....?
- Europako Banku Sozialak emandako mailegua, 12 hilabetetan itzultzekoa 25.300
- Ordenagailuak eta eskanerra 15.500
- Beste enpresa batek emaniko mailegua, 15 hilabete barru itzultzekoa 4.250





Universidad Pública
de Navarra
Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

Urte honen amaieran lortutako irabazia interes eta zergak kontuan hartu aurretik 42.648 eurora iritsi da.

Ekitaldi ekonomiko honetarako, finantza-gastuak kalkulatzen dira jakinik zorraren batez besteko interes-tasa % 7 izan dela.

Irabaziaren gaineko Zergaren ezarpen-tasa % 35 da.

(1) Kopuru hau lortzeko egin diren kalkuluak idatz itzazu.

HAU ESKATZEN DA:

A) Egoera balantzea idaztea, ondare masen arabera sailkatua: aktiboa likidezia txikienetik handienera eta pasiboa galdagarritasun txikienetik handienera. (1,75 puntu)

B) Kalkula itzazu ondorengo ratioak: Kaudimena, Altxortegi edo Likidezia, Berehalako erabilgarritasuna eta Berme eta Zorpetzea, eta lorturiko emaitzak interpretatu. (1,25 puntu)

OHARRA: Biribildu zifrak bi hamarrenekin.